

# Eguraldiak lagunduta, 10.000 lagun bildu ziren Sagardo Egunean

**A**urrikuspen onenak bete ziren Sagardo Egunean. Euriaren beldur ginen eta eguzkia bete-betean izan genuen. Jendetza handia espero zen, 10.000 pertsona inguru. Eta halaxe izan zen. horrek guztiak ez zuen festa eragotzi. Alderantziz, giro ederra nagusi izan zen.

Goizean goiz hasi ziren lanean antolatzaileak. Hasiera ekitaldia zeozer atzeratu bazen, dena espero bezala atera zen. Sagartzea Elkartekoak pozik eman zioten hasiera Sagardo Egunari. Eta gustura aritu ziren epaile lanetan botatzaileen lehiaketan.

Une hunkigarriena, ordea, Jexux Artzeri eginiko omenaldia izan zen. Ekitaldi xumea baina merezitakoa. Izan ere, Jexux Artze eta beste hainbat lagunak urtetan egindako

lanari esker eskuratu du Sagardo Egunak gaur egun duen oihartzuna.

Aurreko edizioetan bezalaxe, muztioaren prozesuak bisitari guztien arreta bereganatu zuen. Ikustekoa izan zen botatzaileen lehiaketa eta honakoan ere Kerman Errekondo izan zen nagusi.

Kantabriatik etorritako lagunak kolorez zipriztindu zuten goiza. Hango jantziekin atonduta eta hango doinuz lagundurik ez zuten hutsik egin.

Iñaki Astiasuinzarraren erakusketa ere ez zen oharkabean igaro. Argazkilari honek, ordea, ez zuen gidoia aldatu, eta handik eta hemendik ibili zen kamara eskuetan.

Lagun hauek guztiak nabarmendu baditugu ere, protagonista nagusiak Usurbilera etorri ziren sagardozaileak izan ziren.



Eguerdiko 12:00etan plazak honelako itxura hartu zuen.

11:00ak aldera jende asko zen plazan, baina 12:00ak aldera lehertu zen festa. Eguzkitik babestu asmoz, askok frontoian bilatu zuten babeslekua. Baina gainezka zegoen ingurua. Tabernariak ere lan eta lan ibili ziren. Pintxoak egiten aritu ziren lagunak bezalaxe. Edan, edan zen, baina baita jan ere. Horretan ere artistak baikara.



Muztioak izugarritzko arrakasta izan zuen.



Jexux Artzeri eginiko omenaldia xumea bezain hunkigarria izan zen.



Etxerat! erakundearen elkarretaratzea 13:00ean hasi zen.



Kerman Errekondok irabazi zuen berriz ere sagardo botatzaileen lehiaketa.

Horrelako irudiak eskaini zizkigun Sagardo Egunaren XXI. edizioak.